



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO UZTAILAREN 11N  
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Irene Gartzia Palacios.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Jone Urdanpilleta Urdanpilletak eta Josune Estella Arranzek.

**1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA:**

**\* 2017KO EKAINAREN 27KO BILKURAKO AKTA.**

Irene Gartzia abstenitu egin da ekainaren 27ko bilkuran ez zelako egon.

Gainontzekoen aldeko botoarekin, ekainaren 27ko bilkurako akta gehiengoz onartu da.

**2.- JUAN ALTUNA EZKURDIA JAUNAK, ZELAI AUNDI BASERRIAN HARAGITARAKO BEHIENTZAT ERAIKITAKO UKUILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA ETA BERTAN GARATZEN DUEN JARDUERARI IREKIERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.07/2008-0465

JUAN ALTUNA EZKURDIA jaunak, Zelaiaundi baserrian haragitarako behientzat eraikitako ukuiluaren lehen erabilera eta jardueraren irekiera baimena eskatzen ditu.

**AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2008ko azaroaren 25ean, JUAN ALTUNA EZKURDIA jaunari, Zelaiaundi baserrian haragitarako behientzat ukuilu bat eraikitzeke udal baimena eman zio

**OBRAREN ETA JARDUERAREN LEGEZTAPENA**

2016ko ekainaren 7an, JUAN ALTUNA EZKURDIA jaunak, burututako obraren eta jardueraren legeztapen proiektua aurkeztu zuen.

**TXOSTEN TEKNIKOA**



Usurbilgo Udala

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2017ko ekainaren 26an ALDEKO txostena eman dio. Hitzez hitz honela dio:

(...)

Txostena izenpetzen duen teknikariak, ikuiluan bisita egin ostean, egindako lanak aurkezturiko proiektuari egokitzen direla ikusi da eta hego-ekialdean eginiko zabalkundea abelburuen kudeaketaren hobekuntzarako denez, ontzat ematen da, eta horrela jasota dago obren eta jardueraren legeztapen proiektuan.

Ondorioz, obren legeztapena, jarduera baimena eta irekiera baimena emateko ALDEKO txostena igortzea proposatzen dut.

(...)

Gauzak horrela, nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** JUAN ALTUNA EZKURDIA jaunak, Zelaiaundi baserrian haragitarako behientzat eraikitako ukuiluari lehen erabilera baimena eta bertan garatzen duen jarduerari irekiera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**